

CIC NANO GUNE – NANOZIENTZIETAKO IKERKETA KOOPERATIBOKO ZENTROA

Sozietatearen izena

Asociación Centro de Investigación Cooperativa en Nanociencias- CIC nanoGUNE

IFK

G20903449

Izaera

Elkartea.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

2006ko otsailaren 28an eratu zen irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa eta martxoaren 22an inskribatu zen Elkartearen Erregistroan [2006ko ekainaren 30eko EBAZPENean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariarenean, Elkartearen Erroldan joan den martxoan egin diren sarrerak eta oharrak argitaratzekoan](#), jasota dagoen bezala.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

EJSN

8560 Hezkuntzari laguntzeko jarduerak.

Helburua eta xedeak

Sozietatearen helburua da nanozientzien alorreko jakintza zientifiko eta teknologikoa sortzea, produzitzea, sustatzea, zabaltzea, aplikatzea eta ustiatzea, ikerketa eta garapen esperimentaleko jarduerak sistematikoen bitartez, eta prestakuntza, transferentzia eta emaitzei zabalkundea emateko jarduerak eginez sektore anitzetako gizarte-eragileekin eta eragile enpresarialekin, hirugarrenei irekita beti eta jarduerak bazkideei bakarrik mugatu gabe, Euskal Berrikuntza Sistemako eragileekin lankidetzan jardutea eta konektatuta egotea sustatuz, Euskal Herriko Administrazio Publikoak bultzatuta, nanozientziei buruz indarrean dagoen estrategiarekin bat.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Sozietate ez-finantzarioak.

Sozietatearen Funtsa

2.400 €

Bazkideak

Donostia International Physics Center fundazioa
EHU
Gipuzkoako Foru Aldundia (*)
Tecnalia Fundazioa
IK4 Research Alliance Elkarte

(*) Gipuzkoako Foru Aldundia bazkide instituzionala da, ez du erantzukizunik ezta obligazio ekonomikorik ere, Zuzendaritza Batzordearen 2006/11/20ko aktan jasotako onarpen-akordioaren arabera.

Batzar Orokorra

Batzar Orokorra, bazkide guztiek osatua, bazkideen borondatea adierazteko organoa da.

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	50.892.026 €
Ondare garbia	38.059.069 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	215.892 €
Langile kontratatuak 2012/12/31n (TC2)	65

Sozietatearen helbidea

Tolosa hiribidea, 76, 20018 Donostia (Gipuzkoa).

Webgunea

www.nanogune.eu